



TREBAKUNTZA 2013-02: ERE PARTIKULA

Udal idazki askotan, **ERE partikula** ez da zuzen erabiltzen. Egunerokoan ere txarto erabiltzen da askotan, lekuz kanpo; batez ere, ahozkoan. Hona hemen zuzendu beharreko akatsak:

OHARRA: Asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

AZALPEN OROKORRA

ERE partikulak bi ezaugarri nagusi ditu:

- a) Perpausaren **osagai bati egiten dio erreferentzia**
- b) Osagai horren **atzean** eta **ondo-ondoan** kokatzen da beti

OHIKO AKATSAK

1. * (Ahozkoan) Koldo gurekin etorriko da. **ERE** Ane etorriko da.
2. * (Elkarrizketa batean) Ni etxera noa. Itxaron, ni **ERE** noa.
3. * Idatziz **ez ezik**, ahoz adierazi genion abokatuari kontratua eten diogula.
4. * (Elkarrizketa batean) Antton lanera joan da. Txomin **ERE**.
5. * (Ahozkoan) Iratxek ikastaroa egin du. **BAITA ERE** Mirenek.
6. * (Ahozkoan) **BAITA ERE** esan beharra dago XXX alderdiak mozioa garaiz kanpo aurkeztu duela, eta...
7. * (Ahozkoan) Ez da inor etorri **ERE**.
8. * Pentsatu ez ezik, **ERE IDATZI EGIN** dut.

Udal erri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. Azalpen orokorrean adierazi dugunez, **ERE partikula** beste elementu baten atzean kokatu behar da. Hartara, **ez da zuzena esaldi hasieran jartzea.**

Ad. (Ahozkoan) Koldo gurekin etorriko da. **Ane ere** etorriko da.

2. **ERE aditz trinko baten aurrean** badoa (ad. dator, daukat, doa, dabil...) **aditzak BA- hartzen du.**

Ad. (Elkarrizketa batean) Ni etxera noa. Itxaron, **neu ere BA**noa.

3. **Aurretik EZ EZIK** partikula erabili badugu, derrigorrezkoa da esaldiaren **bigarren zatian ERE** partikula erabiltzea.

Ad. Idatziz **ez ezik, ahoz ERE** adierazi genion abokatuari kontratua eten diogula.

4. BAI partikulak aditza ordezkatzeko du; beraz, **ez da zuzena aditza eta BAI batera erabiltzea.**

Ad. (Elkarrizketa batean) Antton lanera joan da. Txomin **ERE BAI.** (edo Txomin **ERE joan da**).

5. eta 6. **Ez da zuzena** ERE partikula eta ERE partikularen aldaerak **esaldi hasieran** jartzea: **BAITA ERE, EZTA ERE, ERE BAI, ERE EZ...**

Ad. (Ahozkoan) Iratxek ikastaroa egin du. Mirenek **ERE BAI** (edo **BAITA Mirenek ERE**).

Ad. (Ahozkoan) **HORREZ GAIN**, esan beharra dago XXX alderdiak mozioa garaiz kanpo aurkeztu duela, eta...

Bigarren esaldian ERE partikula erabili nahi izanez gero, **aukera hau** dugu:

Ad. XXX alderdiak mozioa garaiz kanpo aurkeztu duela **ERE** esan beharra dago, eta...

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uea.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

7. ERE partikula **indartu nahi duen elementuaren ondoan** kokatu behar da.

Ad. (Ahozkoan) Ez da inor **ERE** etorri (**Inor** indartu nahi da, ez etorri).

8. Erreferentziazko osagaia aditza bada, **EGIN erabili edo aditza errepikatu** behar da. Hona hemen adibidea:

Ad. Pentsatu ez ezik, **IDATZI ERE EGIN** dut (edo **IDATZI ERE IDATZI DUT**).

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

- Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)
- Posta elektronikoz: bizkaia1@uema.org (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99